

naiz:

07 MAY. 2026 - 12:32h

Zauri kolektiboez, kulpaz eta familiaren barneko harremanez dihardu Zabalak 'Agerre' eleberrian

Juan Luis Zabala idazleak eleberri berria argitaratu du Ereinen eskutik, 'Agerre'. Bertan gizartearen zauri kolektiboez eta aitaren ata alabaren arteko distantziaz ari da, kulpaz abiapuntu duelarik. Hausnarketarako oina jartzen du eta, Inazio Mujika editorearen arabera, «irakurri ondoren hasten da».

Alaia Sierra ✕

Aktualitateko erredaktorea / Redactora de actualidad



Juan Luis Zabala, 'Agerre' nobela berriarekin. (Gorka RUBIO | FOKU)

'Agerre' nobela argitaratu berri du Juan Luis Zabala idazleak. Ane alabak Agerre aitari buruz lehen pertsonan kontatutako istorioa biltzen du, istripu txiki batetik eta honek aitarengan sorrarazten duen erruduntasun sentimendutik abiatuta. Elkarren arteko harremanaz, iragan politikoaz eta gizartearen zauri kolektiboez hitz egiten du.

120 orrialde ditu eta «eserialdi batean irakurri daiteke», azaldu du Inazio Mujika editoreak ostegun honetan Donostian egindako aurkezpenean. Hala ere, hausnarketarako aukera ematen duenez eta irakurtzean «pentsatzen den» liburua denez, editorearen hitzetan, barner prozesua «askotan liburu klase hau irakurri ondoren hasten da».

Erruduntasunaren ideiatik abiatu zen Juan Luis Zabala liburua idazteari ekiteko. Istorioa ere hortik hasten da, baserriaren izenagatik Agerre deitzen duten 60 urte inguruko gizonak emakume bat bizikletarekin harrapatzen duenean. Ez da edozein emakume, ETako kidea zen eta tiroketa batean hildako lagun baten ama baizik. Emakumeak protagonista ez du barkatzen eta «hor sortzen da gizonak bizi duen erruduntasuna eta beldurra», azaldu du idazleak.

Hau ere zure interesekoa izan daiteke



[EH Bildu llega a un acuerdo para reforzar y modernizar a la Ertzaintza en ciberseguridad](#)



[La 'cuadrilla' recreada por Marta Garatea anunciará los Sanfermines 2026](#)


«Erruduntasun horren barruan gaztetan bere herriaren alde besteak bezain beste ez zuelako egiten sentitzen zuena dago, baina baita herriaren alde egindako krimenak ez zituelako behar bezala salatzen», azaldu du Zabalak, sentimenduaren «bi aldeak» justifikatuz.

Narratzailea alaba da, aita protagonista bada ere. Ane Malmon Suedian bizi da eta daukan familia bakarra aita da. Berak esaten duenez, Agerre «ekidistantea» da, baina idazlea ez dator bat horrekin. «Ezin da ekidistantea izan gertutasuna daukalako pertsona batzuekiko, hizkuntza batekiko eta aberri asmo batekiko», azaldu du Juan Luis Zabalak. «Ni ez naiz ekidistantea eta nobela ere ez», argitu du.

Gaineratu duenez, «saiatu naiz alde guztiak ulertzen dituen pertsonaia bat egiten, manikeismotik urrun». Beste gai batzuk ere lantzen dira, belaunaldi berrien deslokalizazioa, kasu. Ane alabak «ez du euskalduntasuna bizi aitak bezala» eta «berari komeni zaionaren alde» egiten du, «mundu justu baten alde» baino.

Idazleak aitortu duenez, protagonistarekin «sintonizatzen» du, berdin-berdinak ez badira ere. «Uste dut jende asko dagoela Agerregandik nahiko gertu egon dena eta isilik dagoena, daukan motxilan zer dagoen adierazteko biderik ez daukan jendea», adierazi du Zabalak.

PUBLICIDAD



PUBLICIDAD